



## KORRIKAREN 18. EDIZIORAKO BIDEOA

Orain dela hilabete, nork pentsa zezakeen gure bideoak sarea erreko zuela lau mila bisita baino gehiagorekin? Eta irabazleak izango ginela?

Hemezortzigarren KORRIKA edizioa zela eta, Orokietako irakasle eta gurasook osatzen dugun Normalkuntza Batzordeko kideok pentsatu genuen gure ekarpena egin behar geniola kausa honi.

Aurreko urteetan, Korrika Zarauztik pasatzen zenean, gure eskolako kide guztiok parte hartzen genuen eta lekukoa eramaten genuen. Baina, aurten zerbait gehiago egitea proposatu genuen eta edizio berri honetan erabaki genuen “Eman Euskara elkarri” lelopean eta Esne Beltzaren musikari jarraituz antolatutako Bideoklip txapelketan parte hartzea.

Horrela, Balurdin Guraso elkarteak, gure hizkuntzari babesa emateko asmoz, eskolako komunitate osoa inplikatu nahi izan zuen.

Helburu honekin bi bideo grabatu genituen. Batean Saioak, eskolako zuzendaritzako kideak, eta lau guraso euskaldun berrik berriketan egiten dute. Solasaldian kontatzen digute euskara bere ama hizkuntza ez izan arren, gaur egun haien eguneko elkarrizketarako tresna bihurtzea lortu dutela.

Elkarrizketa honetan aipatzen dituzte besteak beste, euskara ikasteko arrazoiak zein izan diren, lortzeko zer ahalegin egin behar izan dituzten, zer bide egin duten eta, noski, lorpen honek beren bizitzan zein aldaketa ekarri dituen.

Ekarpen horiei esker hobeto uler dezakegu zer zaila den hizkuntza berri bat, hurbilekoa baina ezezaguna, eguneroko bizitzan sartzea.

Horretaz gain, aipatu behar da eskualdeko ERLO telebistak gure grabaketa bere eguneko programazioaren barnean sartu duela, eta horri esker, zarauztar askok ezagutu ahal izan dituela guraso horien esperientziak eta proiektu honetan Orokietak egin duen lana.



Baina, dudarik gabe, aurtengo Korrikaren musikari jarraituz egindako dantza-bideoa izan da arrakastatsuen eta jendetsuen. Horretarako, eskolako guraso askoren laguntza izan dugu. Adibidez, Alazne soinuari; Javi kamara-lanetan, gidoigile eta muntatzaile; Jaione koreografia-lanetan eta saioa zuzentzen; Izaskun, ama eta irakaslea, eta Andoni, Balurdin batzordeko kidea muntaketa erraldoi honen zuzendaritza- eta koordinatze-lanetan. Horrez gain, guraso, irakasle eta ikasle askok asko disfrutatu dugu parte hartzen.

Bi saio nahikoak izan ziren zer egin nahi genuen erabakitzeko, eta larunbat goiz hotz batean lortu genuen eskolako patioan, elurpean, dardarka eta barrez, maisulan hau grabatzea.

Korrika, saltoka, eta oihuka, familian disfrutatu genuen proiektu honekin. Eta bukatzeko, txokolate beroaren aurrean grabaketan gertatutakoez aritu ginen.

Txikienek ere parte hartu zuten. Egun batean kamara haien geletara sartu zen eta, barre egiten zuten bitartean, erritmoari jarraitzeko gai direla erakutsi ziguten, eta frogatu zuten, dudarik gabe, haiek ere egin zezaketela zerbait euskararen alde.

Eta ezin ditugu ahaztu Juanjo atezaina, lantresnak eskuan zituela; ez eta sukaldariak lapikoen aurrean dantza-pausoak eginez.

Laburbilduz, eskolako kide guztiok hartu dugu parte proiektu honetan eta guztiok egin dugu dantza Esne Beltzak euskararen alde egindako abestiaren erritmoan.

**“Euskarari elkarrekin eman diogu”**

<http://youtu.be/jXnFFU6eaAc>

<http://youtu.be/rmePZuW14Mg>